

>> Baserrietatik, lurretik sortutako kolektibo bati, zer eskaini diezaioke kaletar asfaltokume batek, atxikipena edota sostenguaz aparte (ez dela gutxi)? Ebidentzia bat da: kaletarrok, oro har, nekez ezagutzen ditugu baserrietako egunerokotasunaren joanak eta etorriak. Lurrarekin daukagun lotura dezente malgua da. Sikieran, kontsumitzen ditugun gure inguruko baserritarren produktuek aingura-lana egiten dute, argi izan dezagun, behintzat, negu gorrian ez dagoela lekarik.

Berripaper hau eskuartean duzunetik esango nuke zu, EHKolektiboko bidaide eta gogaide, arduratzen zaituela elikadura osasuntsuak, landa-eremuen eta baserrien biziraupenak eta ekologiak. Ziurrenik, ezinegona sortzen dizu ere elikadura sistema globalizatuak hemengo eta hango baserritarrei eragiten dien presio jasangaitzak, eta ematen dituen desoreka sozialak. Behintzat, badaukagu guzti horri heltzeko tresna bat: agroekologia, EHKOren iparrorratza.

EHKolektiboa jatorrian laborantzatik sortua izanagatik, herritarrok badugu paper bat jokatzeko, nola ez ba, agroekologiak suposatzen duen paradigma berri honen lanketan. Izan ere lan-ildo asko biltzen ditu bere baitan agroekologiak, eta kide guztien inplikazioarekin bakarrik egin dezakegu aurrera, bakoitzak ahal duen neurrian, baina ekarpenak egiteko denok gara balekoak.

Lan-ildo horien artean, garrantzitsuena eta kolektiboaren sorrera eragin zuena dugu EHKO IDENTIFIKATZAILEA. 7 euskal herrietako etxalde txiki-agroekologiko zenbaitzutan partekatzen zen ezinegonetik, sortu zen lehenengo EHKolektiboa eta ondoren identifikatzailea: laborantza

(agro)ekologikoa nekazaritza ekologiko industrial eta globalizatutik bereizteko beharretik alegia. Energia asko mobilizatu zen 2012-2013 hartan Irurozkitik, Pirinioak gaindituz, Donapauleraino; Faltzesetik, Ebron gora, Salzedoraino; Urduñatik Ajangizeraino, eta Eibartik Senpereraino... Handik sortu ziren EHKOren "agroekologiaren zuhaitzak", eta ondoren Konpromiso Agiria eta Onarpen Komisia. 2018ko abenduan, egoera ekonomiko larriari aurre egiteko premiak eta Talde Eragilea berrindartzeko beharrak identifikatzailea "pausan" jartzea ekarri zuen, baina berau garatzeko konpromisorekin atera ginen Lesakatik.

Gaur esan dezakegu egoera ekonomikoa epe ertainerako ziurtatuta daukagula. Izan ere, 2020ko abenduan bi urtetarako lasaitasun ekonomikoa eman digun albiste ederra jaso genuen. Bizilur GKEekin batera (eskerrik asko neskak!!) dirulaguntza bat eman digute 2021-2022 epean EHKO identifikatzailearen lanketan sakontzeko. Bide horretan hasi genuen iazko urtea, Berme Sistema Partehartzailearen aldeko norabidea aukeratuz.

Bide horretan kide guztiok eta baita herritarrok gara funtsezkoak, eta hala erakutsi dute uda honetan egin ditugun 68 bisitek. Azpimarratzekoa eta eskertzekoa da etxaldeetara egindako bisitetan herritarrek hartu duten papera, 30 kide inguru izan zarete gurekin, etxaldeak ezagutzen eta zuen denbora partekatzen. Pixkanaka herritarrek gure kolektiboan duten papera argitzen eta zehazten ari gara, zubiak sortu eta indarrak batzeko unea baita.

2021ean aurrerapauso erabakigarriak emango ditugu elkarrekin. Bas/Herritarrak agroekologiarantz! ●

Haritz Mayora, EHKolektiboko Talde Eragileko kide herritarra

## 2020an egindako hainbat elkarlan (formazioak, argia, merkatuen kanpaina, baserriko plaza)

>> Urte aldrebesa 2020a, ondotxo aldatu ditu EHKOren jarduna! Urtea gogoz hasi genuen EHKOren bideorria BSParen norantzan kokatzen eta hori kide guztiekin hausnartzeko grinaz. Baina Topaketa bertan-behera utzi behar izan genuen pandemiaren hasieran, eta ezin izan gara denok berriz ere elkartu...

Orduantxe jarri ginen buru-belarri BASERRIKO PLAZA webgunea proiektuarekin, irtenbide bat emateko salmenta gunerik gabe gelditu ziren Euskal Herri osoko laborantza proiektuei. Proiektu horrek ez zuen aurrera jarraitu, baina grina kolektiboaren bidez MERKATU GUZTIAK BEHAR DITUGU kanpaina arrakastatsua bultzatu genuen, nekazaritza sektoreko hainbat eragilerekin batera, eta herri-mugimenduko 300 eragilek eman zioten babesa.

Udaberria hortan joan zitzaigun eta baita UDAn egin ditugun 68 etxalde bisita antolatzen eta galdetegiak prestatzen. Eta horiek guztiek aztertzen pasa zaigu udazkena, ordenagailuaren aurrean datuak transkribitu, baloratu eta tauletan grafiko eta fitxak prestatzen. Laster erakutsiko dizkizuegu!

Formazioen urtea ere izan da 2020a. Sendabelar ekoizpenerako ikastaroa antolatu zen urte hasieran eta udazkenean abeltzaintzat Nekropsia formazioa egin zen.

Pena handia izan da BASERRIKO UZTA ekimenak bertan behera gelditu izana, eta tamalez 2021erako esperantza gutxi ditugu... dena den, joan den urteko etxaldeak prest daude, egoera aldatuko balitz, beren etxeak kulturari berriz irekitzeko. EA LASTER denok berriro elkartu gaitezkeen eta momentu goxoak lasaitasun osoz partekatu. ●



**EHKO**  
egonkortasun  
ekonomiko-  
aren  
bidean

>> Dakizueenez, azken 4 urteak estuak izan dira maila ekonomikoan EHKOrentzat, justu-justuan eta nekez, baina egin dugu aurrera. 2018 urtearen amaieran Lesakan egin genuen ezohiko batzarrean argi gelditu zen zailtasun ekonomikoek gure kolektiboaren jarduna lausotzen dutela eta gure lanaren norabidea desbideratu dezaketela. Hortaz, azken urteetan buru-belarri lan egin dugu, EHKO egonkortasun ekonomikoaren bidean kokatuko duten proposamenak lantzen.

Jakin badakigu, egonkortasun ekonomikoa, modu autonomoan bilatzea dela EHKOren helburua, baina gaur egun, gure bazkidetzaren eta estrukturan baliabide ekonomikoak oraindik urrun kokatzen gaitu independentzia ekonomikotik.

2020an proiektu bat aurkeztu genuen Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzara Agentziara **BIZILUR** GKEaren laguntzari esker. Eskertuak gaude **BIZILUR**ren babes eta lanari, izan ere proiektua onartu egin da eta bi urtetarako babes ekonomikoa ziurtatuko du. Proiektu honek EHKOren jarduna ahalbideratuko du, BSPa garatu eta gure eginkizun naturalak aurrera ateratzeko. Babes ekonomikoaz gain **BIZILUR**reko lagunak gertu izango ditugu, bidelagun, eta elkarlanean jardungo dugu datozen bi urteetan!

Lasaitasuna ematen digu honek gure bidea ekiteko, baina adi jarraitzen dugu lanean, gure etxaldeetan bezala diru-iturriak dibertsifikatzeko. Hiru lurraldeetako gobernu eta erakundeekin harremanetan gaude, eta datozen urteetarako babesak jasotzea espero dugu. ●

## BERME SISTEMA PARTE HARTZAILEA agroekologiaren bidean



>> 2020. urteko TOPAKETAN kide guztiekin partekatu nahi izan genuen, baina fisikoki elkartu ezin, eta Talde Eragiletik, ahaleginak egin genituen bideo batean azaltzeko proposamenaren nondik-norakoak. Urtea joan da eta EHKO Berme Sistema Parte Hartzailea hezur-mamitzeko prozesuan dihardugu, gure zalantza eta motibazio guztiekin.

Berme Sistema Parte Hartzailea, hitz aldrebesa den arren, bere funtsa oso sinplea da. EHKOren balioak denon artean eta oinarritik garatzean datza, Euskal Herrian eredu txikiko nekazaritza ekologikoa babesteko, agroekologiaren eskutik. EHKO IDENTIFIKATZAILEA gorpuztea da funtsean BSPa egituratzea,

lehendik EHKOLEktiboan eratuak genituen tresna (Konpromiso Agiri, Oholak, Mapa) eta espazioak (Onarpen Komisio, Lan-Talde) indartzea eta berme sistemak ongi funtzionatu dezan beharrezkoak diren antolaketa eta dinamizazioa transmititzea.

2020ko udan BSP honen lehen pausoak eman ditugu etxalde bisitak eginez hortarako propio prestatutako galdetegi berri bat. Horrela baliatuta genuen, izan ere EHKOk kideen artean elkar ezagutzeko behar handia genuen, etxalde bisitak lan-tresna bezala probatzeko, zertan gabiltzan ezagutu eta azken finean elkar ikusteko. Talde Eragiletik jakin nahiko genuke, zer moduz bizi izan dituzuen zuek bisitak, prozesua

interesgarri egiten zaizuen eta ea nola bizi duzuen EHKO Berma Sistema Parte Hartzailearen bidean sartu izana.

Hortaz, EHKOLEktiboaren bidearen norabidea BSP izango da 2021ean ere, beti ere hala onartzen bada 2021eko topaketa eta lan-taldeetan. Hurrengo pausoak orduan, EHKOn ditugun espazioak edo taldeak egituratzea izango litzateke (Onarpen Komisio, Lan-Talde), eta pixkanaka irizpideen lanketa egitea EHKO ZUHAITZAK berrituz eta gure barne araudi garbia finkatzea.

Topaketan eztabaidatuko ditugu BSParen garapen pausoak, baina tira, udako bisitetatik fresko, motibazioa behintzat ez da faltako! ●

## BERME SISTEMA PARTEHARTZAILEA EHKOren bidea!



ETXALDE BISITAK



ONARPEN KOMISIOA



LANTALDEAK

>> Badira urte batzuk Talde Eragilean kide kopurua gutxitzeko joera eman dela, eta lurraldetasun ordezkartza gero eta "Kantauri-isurialdekoa-goa" bihurtu dela (2 kide bizkaitar eta 3 kide gipuzkoarrek osatzen dute gaur egun Talde Eragilea). Izaera horrek zuzenean eragiten dio EHKOK behar duen begirada globalari.

Muga horiek aintzat hartu beharra sentitzen dugu Talde Eragileko kideok, eta gure estruktura errealtate horretara moldatu beharra daukagu, ekiten jarraitu eta lurraldeak eta nortasunak atzean ez uzteko. Izan ere, kontziente gara eguneroko etxaldeetako jardunak zaila egiten dutela EHKOren funtzionamenduan inplikatzeko, urruntasun eta lan-karga handien presioagatik.

Baina badira antolaketarako beste eredu posible batzuk, Talde Eragilearen izaera zabaltzeko, modu eta neurri ezberdinean kide gehiagoren indarra baliatu ahal izateko. Gainera, baditugu hainbat kide EHKOren jarraipenean motibatuak eta beren aletxoak emateko prest egon arren >>

## TALDE ERAGILEA eredu deszentralizatu bateruntz

>>

distantziak mugikortasuna asko zailtzen diena. Hortaz Talde Eragiletik, kide horiengana gerturatzea erabaki dugu eta Talde Eragileak adarrak izatea Nafarroa, Araba eta Iparraldean. Helburua litzateke pare bat kideko nukleoak egin eta Talde Eragilearen jardunaren jarraipena egin ahal izatea, ekarpenak proposatzea, eta lurralde horietan EHKOren martxa bideratzea. Kide horiekin hilabeteroko lanketa presentziala egiten ari gara, dinamizatzailerak lurralde edota etxaldeetara gerturatuz, eta jarraipen telefonikoa bestelako bidela-guntzetarako.

Bereziki pozik gaude gainera Iparraldeko BLE elkarteak, EHKOren indartzearen aldeko apostu garbia egin duelako, eta Martta Irigoien langilea liberatu duelako astean hainbat orduz EHKOK Iparraldean behar duen lana bideratzeko. Dinamizazio lanetarako bultzada oso garrantzitsua izango da. ●

## 2021: topaketa, irizpiden lanketa, sistemaren oinarriak, prozesuaren balioaztatzea

>> Urtero saiatzen gara BOLETIN hau TOPAKETEN prestaketa materiala bezela bidaltzen. Horrela topaketa eguna baino lehen kide guztiek aukera izan dezue EHKOren dinamikan murgiltzeko eta akaso hainbat hausnarketa egin ahal izateko.

Oraindik ere pertsonak elkartzeko, indarrean dauden muga eta zailtasun guztiekin, EHKOKo Talde Eragiletik erabaki dugu, aurten TOPAKETA 6 toki eta egunetan banatzea eta kide bakoitzak aukera izango du, nahi duen hitzordura gerturatzeko. Talde txikiak izango garen arren, lanketa berdinak egingo ditugu, eta espero dugu kolektibo guztiaren indarra sentitzea saio guztietan. Aurretiaz izena eman beharko da, antolaketa errezeko, baina ziurtagiriak egingo dizkizuegu lasaiago ibili nahi izanez gero.

Aurtengo TOPAKETAK hainbat helbururekin antolatu ditugu. Aspaldiko partez elkarrekin egoteko gogoia dugu, nola gauden eta zaudeten ezagutu, etxalde batean elkartu, elkarrekin bazkaldu, berotasun pixka bat sentitu garai arraro hauetan... Bestetik, eta buletin honen amaierara iritsi bazarete konturatuko zineten, isilik egon garen arren, kontu pila bat ditugula eskuartean eta horiek partekatu nahi dizkizuegu. Gure

pausoak aurkeztu eta kideen ekarpenak jaso nahi ditugu. Zer diozue, egingo dugu aurrera BSParen bidean IDENTIFIKATZAILEA garatzeko?

Bide hori TOPAKETA hauetan hasi nahiko genuke. 2013. urtetik erreparasatu gabe genituen gure nortasuna irudikatzen duten ZUHAITZAK, eta aurten horiek berriro egin nahi ditugu, bisitetan eta galdetegi azterketetan jasotako informazio guztia baliatuz prozesua bizkor eta ongi egiteko moduan gaudela uste dugu. BSPa garatzeko sortu dugun LAN-KOADERNOAren idazketarekin batera, ZUHAITZ BATERATU berriaren zirriborroa egin dugu. Hurrengo orrialden duzuen proposamenaren gainean eztabaidatuko dugu TOPAKETAn, eta elkarrekin osatu eta azpi-irizpideak finkatzeko ariketa egingo dugu.

Topaketaren azken helburu bezela gure parte-hartze guneak ber-egituratzea izango da erronka. 2018an IDENTIFIKATZAILE prozesua gelditu zenetik Onarpen Komisia ez da berriro elkartu, eta aurten espazio hau berpiztu egingo dugu, bere funtzioak argitu eta hobeto antolatzen saiatuko gara, talde berri batekin. Lan-talde arduradunak ere finkatu beharko ditugu, urteko bilerak antolatu eta irizpideen lanketa bideratzeko konpromisoa izango dutenak. Egonkortasun ekonomikorako batzordeak aurten ere zereginak izango ditu, modu iraunkor batean funtzionatzen jarraitu nahi badugu etorkizunean. Eta azkenik EHKOLEKTIBOAK hainbat "kanpo"-proiektutan parte hartzen duenez, lan konkretu horietarako pertsonak izendatu beharko dira.

Azken urteetan argi ikusi dugu laborariak eta herritarrek EHKOrri eman diezaiokegun denbora mugatua dela, baina konturatu gara, parte hartzeko espazioak errezten baditugu eta funtzioak zehaztuz gerturatzen bagara, badagoela elkar-ekintzarako gogoia. Ardura bakoitzeko zereginak eta parte hartzeko moduak zehaztu ditugu, ahal dugun neurrian lurralde eta hizkuntza guztietako pertsonak, maila txikian bada ere, parte har dezazuen.

Garatzera goazen sistema, tresna oso indartsua izan daiteke gure herriko elikadura sistemari bultzada handi bat emateko. Elkarrekin lortuko dugu! ●

### PARTE-HARTZE BEHARRAK 2021

|                  | Konpromiso maila                  | Lan motak                                                                                                          |
|------------------|-----------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| TALDE ERAGILEA   | Talde Eragilea + Lurralde loturak | Handia. EHKOren martxaren jarraipena, ibilbidearen ezagutza.                                                       |
| ONARPEN KOMISIOA | Koordinazioa                      | Ertaina.                                                                                                           |
| LAN TALDEAK      | Urteko arduradunak                | Urteko lan-taldearen antolaketaren ardura dinamizatzailerak kin batera. Irizpideen lanketa eta orientazioa egitea. |





# EKOIZPEN EREDUAK elkarrekin egin dugun ikerketa

>> 2020an egin ditugun bisitekin lortu dugun informazio guztia baliatuz bi txosten egin ditugu. **Kanpora begira EKOIZPEN EREDU AGROEKOLOGIKOEN** ikerketa argitaratuko dugu, eta **barrura begira, EHKO identifikatzailea eta BSP prozesuaren garapenerako BSP LAN-KOADERNOA** izeneko azterketa, Zuhaitzen eta Konpromiso Agiriaren berrikusketan oinarritzen dena.

EKOIZPEN EREDUEN ikerketa 2018-2019 urteetan EROSKETA EREDUEN ikerketaren jarraipen moduan ulertu dezakegu, baina baita **jendarteari agroekologia modu konkretuan, irizpide batzueri lotuta ulertarazteko komunikazio proposamen** modura. Guk jakin badakigun arren, gure etxaldean balioa zein den, askotan hori komunikatzeko tresnen falta somatu dugu, adibidez EHKOren baitan dauden etxalde agroekologikoak nolakoak diren eta nola lan egiten duten azaltzerakoan.

Luze joko luke laburpen honetan azaltzea ikerketan erabilitako metodologia eta prozesua, beraz zenbait aipamen besterik ez ditugu azale-

ratuko. Ikerketa modu partehartzailean egin dugu, prozesu guztiz herrikoia bideratuz. Prezioaren ordez pertsonen (gure laborari eta herriarren) inplikazioa bilatu dugu, eta elkarrekin oso denbora gutxian eta baliabide gutxirekin lan egiten jakin dugu. Espero dugu dimentsio hori ulertzea ;).

Azterketa bisitetako galdetegiekin jaso dugun informazioarekin egin dugu, hainbat irizpide interesgarri aukeratu eta horiek baloratzeko sistema simple bat bilatu dugu. 57 galdera baloratu dira, 30 bat irizpidetan baloratuak. Ondoren ikusi eta ikasi dugu, sistema honek muga nabariak ekarri dizkigula, eta zalantzak sortu dizkigu modu honetan lan egin izanak.


adibidez

Lurraren erabilera

Lurzorua zaindu edo hobetzeko teknikak

Ezer ez = 0  
Zerbait egiten da = 1  
Asko egiten da = 2


Aipatutako galdetegi eta balorazioekin, irizpide sorta handia jaso dugu, eta horiek EHKOren oinarrietan antolatzeke lana egin dugu. Talde Eragilearen lanketa baten ostean, sortutako irizpide guztiak 4 zutabeetan sailkatu dira: GERTUKOA, EKOLOGIKOA, GIZA-NEURRIKOA eta EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAN.




Ondoren irizpide horiek GRAFIKO ERRADIALEN bidez ikustarazi ditugu. Helburua, baina, ez da etxaldearen arteko konparazioa egitea, baizik eta norberak bere etxaldea kokatu eta hobeto ulertzeko tresna izatea. Sistema hau hobetzeko beharra agerian gelditu den arren, tresna-mota interesgarria izan daiteke etorkizunera begira.

Amaitzeko, etxalde guztiak lan-talde eta azpi-taldeka sailkatzeko ahalegina egin dugu, EHKO etxaldean dibertsifikazio maila altuak, azterketa korapilatu egin duen arren. Oso ondorio interesgarriak agertu dira, etxaldearen funtzionamendu eta egoeraren inguruan. 64 orrialdeko txostena atera da, eta hurrengo pausoa, hori laburtu eta denei helaraztea izango da. •

Balorazio horiek etxalde bakoitzarenak, lantalde mailan aztertu ditugu, elkarren artean erlazionatuz. Kalkulu orri kolaboratiboekin lan egin dugu 6 bat pertsonak, matrize, taula eta grafiko erradialak sortzen eta hori dena, azkenean ETXALDE FITXETan sintetizatzen ahalegindu gara. Laborariek ikusi dituzue jada bakoitzaren FITXAK eta KIDE guztiei laster helaraztea espero dugu.



>> Etxalde fitxa



>> Grafiko erradialak



# AGROEKOLOGIAREN ZUHAITZ BATERATUA

## EHKoren HELBURUAK

-  Giza neurriko etxaldeak
-  Ekonomia Sozial eta Solidarioa
-  Ekoizpen Ekologikoak
-  Gertutasunean oinarritutako proiektuak
-  Laboratza laborarien ogibidea, ez negozioa
-  Elikadura Burujabetza gizartearentzat
-  Gardentasuna

## EHKoren OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Ekoizpen eredu ekologikoa  
Bioaniztasuna eta Agroaniztasuna  
Animalia Zama  
Animalien Elikadura  
Tratamenduak  
Transgeniko kopurua  
Ingurumenarekiko errespetua, kutsadura maila  
Lurra zuzentzeko teknikak  
Energia kontsumoa  
Ondakinen kudeaketa

**+ LANTALDE  
BAKOITZAREN  
IRIZPIDEAK**

**maneu  
EKOLOGIKOA**

**Alor  
SOZIALA**

**BERTAKO  
TASUNA**

Etxaldearen Autonomia maila (laborarien arteko elkarlana)  
Ekoizpen Eremua  
Baldintza sozialak  
Herritarrekin harremana/komunikazioa  
Gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden integrazioa  
Generoa eta Emakumeen parte hartzea  
Langileek erabakietan parte hartzeko dituzten aukerak  
Prezioen egokitasuna

Salmenta bideen gertutasuna  
Hazi eta landareen/animalia arrazen bertakotasuna  
Eraldaketa erabiltzen diren lehengaien jatorria  
Etxeko elikaduraren Autonomia maila  
Ekoizpen-Eraldaketa-Salmentan erabakitze gaitasuna  
Jardueraren dibertsifikazioa maila  
Erebiltzen diren merkaturatze bideen dibertsifikazioa maila  
Nekazaritzako prestakuntza saioetan parte hartzea  
Elikagai ekologikoen kontsumoa

## KIDE PARTAIDEEEN KONPROMISOAK (laborari/etxalde, herritar, elkarte/erakunde)

-  Urtean behineko parte-hartze aktiboa:
  - ★ EHKoren ekintza batean parte-hartzea (topaketa, lantalde, Baserriko Uzta, etab.)
  - ★ Etxalde bisita bat egin edo jasotzea
-  Kide kuota ordaintzea
-  Kolektiboaren ardura lanak hartzeko konpromisoa (lantalde ardura, Talde Eregilea, Onarpen Komisia, etab.)